

## MURIXKA TALDEAREN ARRAKASTA DONIBANE LOHIZUNEN

**D**onibane Lohizunen bada oso talde jatorra euskal festak antolatzen dituen: BEGIRALEAK elkarteak. Urteak ematen diote kategoria, ardo onari gertatzen zaion bezala. Aipaturiko elkarteak ekitaldi asko hartzen ditu bere gain: dantza ikastaroak, kantu ikastaroak, mutxikoak Donibaneko plazan igande zehatz batzuetan, Kantu Eguna,... eta abar luze horretan aipatzekoa dugu urtero antolatzen duen UDABERRIA DANTZAN izeneko ikustaldi dotore bezain alaia.

Aurtengoan bi dantza taldek hartu dute parte, Donibane Lohizuneko BEGIRALEAK dantza taldeak eta Lezoko MURIXKA taldeak. Euskal dantzaren inguruko ekitaldi famatu hau 1.997ko apirilaren 18an izan zen, Donibaneko Tenis Estalian. Gaueko 9etan hasi eta ordu bat t'erdia inguruan amaitu zelarik.

Ekitaldiari hasiera emanez, lezoar dantzariak atera ziren lezoar ihauteriko arropaz jantzita, eta beraien artean zeramazkiten Lezoko ihauteriaren pertsonaiarik ospetsuenak: Trapujale, Marinazkane sorgina, zirikoak, eta abar. Suzien argitasunak Tenis Estaliko iluntasuna urratu zuen, eta Trapujalearen kalejira-ren martxak aretoa betetzen zuten ikusleen belarriak alaitu. Izugarri ederra izan zen, baita zirikoek ohiko dantzari ekin ziotenean ere. Tenis Estalia jendez gainezka zegoen, eta lapurtarrek biziki txalotu zituzten hara joandako 30 inguru dantzari lezoarrak.

Ondoren lezoarrek Gipuzkoako, Bizkaiko eta Nafarroako zenbait dantza eskaini zuten, bigarren txanda donibandarrak dantzarietara zuzenduta. Lapurtar dantzari dotore aritu ziren ere,



▲ Murixka taldeko dantzariak izugarriko arrakasta lortu zuten Donibane Lohizunen. Beraien batera Trapujale eraman zuten. (Lander Zurutzaren marrazkia)



▲ Hauxe da Begiraleak dantza talde donibandarraren anagrama. Talde hau izaten da urtero, "Udabérria dantzan" izeneko ikuskizunaren antolatzailea.

eta Lapurdiko ihauteriaren dantzak jokatu zituzten. Hauek bukatu bezain pronto lezoarrek eman zieten segida. Oso aipatzekoa da egun hortan urtehurrena betetzen zuen Gernikako bonbardaketa zela eta, bizkaitar herri martiriari eskeini ziotena. Hunkigarria benetan. Ikusleen bihotza begirunen bete zen. Amaitzean lezoar dantzariak jaso egin zuten ondotxo irabazitako txalo zaparrada.

Ekitaldiari amaiera emateko, bai bi taldeetako dantzariak eta baita ikusleek ere, Lapurdi osoan horren tradizionalak diren mutxikoak dantzatu zituzten. Ikustaldia ezin hobea atera zen, eta aipatzekoa da donibandar eta lezoar dantzarien trebezia eta dotorezia. Arrakasta handia izan zuten. Leporaino beteta zegoen Teniseko areto nagusiak dardar egin zuen dantzariak erakutsitakoarekin. Lapurtarrek ederki ezagutzen zuten Abitxu Soubelet eta Jean Louis Sein "Xanpun"-en zuzendaritzapeko dantzarien estilo ezin hobea, baina lezoar dantzarien indarren aurrean arras hunkiturik gelditu ziren. Lourdes Esnaolak eta Maixabel Orozek zuzentzen duten taldeak jakin izan zuen eskatzen zitzaion ekitaldia ondo betetzen. Alajaina! Nire zorionik beroenak guztientzat, bai donibandar eta bai lezoar dantzariarentzat. Gora Euskal Herriko dantzariak!

Zabarre